

FUNTSEZKO JARDUERAK

Bere funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, manufaktura-enpresa bat da, oinetakoak ekoizteko eta entregatzeko betekizunak dituena, baina esan beharra dago ekoizpenarekin batera geure gizartean dagoen arazo bat konpontzeko asmoa duela gure enpresak. Izan ere, gure erosleak itsuak eta mugimendu arazoak dituzten pertsonak izango dira, Euskal Herrian 172.857 biztanle, hain zuzen ere, eta hauen eguneroko bizitza erraztea izango dugu helburu. Gauza da, beharrezkoa ikusten dugula hauek sentiaraztea ez dutela inoren laguntzaz baliatu behar edozer gauza egiteko, eta horrela haien kabuz baliagarriak direla sentiaraztea.

Gainera, zapatila hauek guk ekoiztiko ditugu geure bezeroetara moldatuta, baina hala eta guztiz ere, denda ortopedikoetara ere zapatila estandar batzuk bidal genitzake jendeak aukera bat baino gehiago izan dezan dendak aukeratzekoan. Hori dela eta, orokorki gure bezeroekin harreman zuzena edukiko dugu, baina bestelako dendetan ere salduko ditugunez, kasu horietan bertako dendariak adieraziko die gure produktuaren funtzioa.

Beraz, esan bezala, gure funtsezko jarduera ekoizpena, banaketa, diseinua... izango dira, baina hala ere merkatuaren beharretarako, publizitaterako, produktua erakustarazteko... beste marketing enpresa bat kontratatuko genuke ("Gureak").